

Euskal herrietan komentuz komentu

Zumarragako mesedetako mojak

La Casa de las Mercedarias de la Caridad en Zumarraga es el buque insignia de una moderna Congregación, activa y polifacética, que atiende centros docentes, sanitarios, casas de espiritualidad y residencias de ancianos. Fundada en 1878 en Málaga, la Congregación de las Mercedarias de la Caridad llegaron a Euskal Herria en 1892, estableciendo su primera residencia en Mondragón.

Euskal Herrian errotu den hainbat moja-kongregazio gazteren antzera, Zumarragako Karitateko mesedetako mojak kanpotik etorri ziren gurera, beren lehenengo hemengo etxea Arrasaten jarriz (1892). Ez dira nahasi behar betidaniko gure mesedetako moja itxiekin (Eskoria-tza, Gernika...) edo Berrizko misiolariekin.

Arrasatera heldu aurretik, bazituzten Etxeak hemendik kanpo, eta gero ere Ahizpa euskal herritarrek hemen eta atzerrian lan egin izan dute. Interes bikoitza du, beraz, guretzat hauen historiak, bertakoa eta kanpokoa, Institutu erlijioso gehienetan bezala.

Karitateko Mesedetako Ahizpak (1878).

Juan N. Zegrí (1831-1905) izan zen Kongregazio honen sortzailea (1878), Malagan. Bizitza aldartetsua izan zuen, eta estualdi latzak pasatuta gero, bakardade zailean hil zen hiri berean, 1905ean. Prestakuntza egoki baten ondoren (Teologian eta Zuzenbidean tituluak jasota), laster izan zuen aukerarik eliz aginte-piramidean gora egiteko, Bikario Jeneral ere izateraino.

Baina, inongo gora beharren aurretik, barrua jaten zion kezka grinatsuak bestelako bideetan

barrena eraman zuen, inguruan ikusten zuen pobrezia eta miseria sozialarekiko errukiak, alegia. Gizadi pobre eta zokoratuaren amodioa izan zen barru-barrutik eragin ziona: Zegrí-ren kasuan, gizakiarekiko maitasun horrek erro erlijiosoak izan zituen; baina, goi-gogoeta urrunetan galdu gabe, fedea eguneroko zeregin zehatz sozialetara zuzendu zituen haren eta inguruko lan-indarrak.

Horregatik, haren asmoan, "gizakien askapen osorako zerbitzu-mota guztiak emango dituen Kongregazioa" izan beharko du Karitateko Mesetako Ahizparteak. Jaio eta berehalako hamarkadan 50 Etxe irekitzera iritsi zen Elkarteak.

Ez zitzaion samurra gertatu aurrera egitea. Geroago ongi gezurtatuko ziren salakuntza batzuk tarteko zirela, Erromak fundatzaile hau sortutako Kongregaziotik baztertu egingo du (1888), eta geroago Kongregazioak berak arbuia-tu (1894); hilda gero ere, luzaroan (1925 era arte), Kongregazioak ez zuen aitortu nahi izan Zegrí bere fundatzailetzat. Azkenik, 2003an Beatotzat aitortu du Elizak Juan. N. Zegrí. Historiaren bide bihurriak!

Dena den, Kongregazioak aurrera egin zuen, eta XXI. mendeko hasiera honetan 1.043 (2010)



ahizpa dira Ahizparte hau osatzen dutenak, 18 Herrialde eta 144 Etxetan; horietako hainbat lagun euskal herritarrak dira.

Euskal Herrian

Karitateko mesedetako moja hauek Euskal Hegoaldean izan ditugu, azken 120 urteetan. Beste Ordena erlijioso batzuetan bezalatsu, Kongregazio honetan ere Andaluziara mojatarako joandako neska euskal herritarrik ez zen falta izan, Kongregazioa jaio berria zela, gainera, 1880tik hasita. Ezzen hori alferrik horrela gertatu: Kongregazioko lehenengo bi Nagusi Jeneralak euskal herritarrak suertatu ziren: Jenobeba Untzueta bergarra (†1906) eta Filomena Gorraiz nafar ledearra (†1910).

Gaur arte (1880-2010), Hegoaldean jaiotako Ahizpak ugari izan dira, hemen bertan lan egiteko ezezik erbesteko ere, Penintsulan bezala beste herrialdeetako Misionetan ere.

2002ko datuen arabera, Hegoaldeko 23 taldetan zeuden Ahizpak 207 ziren. Talde hauek zeregin ezberdinak izan dituzte, sarritan inoren etxeetan zihardutela: haurtzaindegi, zahar-etxe, ospitale, gogartetxe, eskola nahiz bolondres-taldetan. Une eta zeregin bereziki zailak izan dituzte inoiz, Espainiako Gerra Zibilaren ondoko presondegietan, adibidez (Saturraran, 1936-1944).

Arrasaten hasitako bidea zabalduz, Iruñea, Bilbo, Abadino, Eibar, Soralue, Zumarraga, Eskoriatza, Donostia, Asteasu, Oiartzun, Legazpi, Ataun, Goardia, Leza, Estibaliz, Gasteiz edo Egi-

non egin dute lan Karitateko mesedetakoek. Etxe bakoitzak du bere lan. nortasuna: adibidez, Araban Eginokoa (*Haitzur*) Otoitz-Etxetarako pentsatua da, Zerbitzu Sozialetan esku ona dute (inoiz edo bestetan, Herri-Erkundeekin lankidetzan), eta adineko apaizen Babes-Etxeren bat ere badaramate, etab. Nolanahi ere, Zumarragako hau dute, bere zeregin ezberdinekin, Etxerik handiena.

Itxitakoak gogoan ditugula, 43 izango lirake Kongregazioaren Euskal Hegoaldeko Etxeak, gaur egun aipatutako 23 tara bildu badira ere. Alde dezenterekin, Gipuzkoa izan da Karitateko Mesedetako hauek Etxerik gehien izan duten Herrialdea.

Misionetan lanari oso goiz heldu zioten erlijiosa hauek (Txile, 1883), eta euskaldunak indar onez egin zuten lan atzerrian: 1910ean Sto. Domingo-ra joandako zortzi lagunetako sei euskaldunak izan ziren. Kongregazioaren hainbat misiotan egon izan dira gure arteko alaba hauek (Indiako Kerala, Korea, Angola eta abarretan).

Espiritu-bizitzaren historian oroitzen sako utzi duten lekaimeak ere izan ditu Kongregazioak, Euskal Herriko mende beteko bere ibileran, Isabel Lete Landa (Osintxu-Bergara, 1913 – Eibar, 1941) aipatu beharko genuke bereziki, esperientzia mistiko aberatsa izan eta Eibar-en gaixoen zerbitzuan bizi ondoren, 28 urterekin tuberkulosiak jota hil zena.

Joseba Intxausti